



## JUSTIFIKAZIOA - JARDUERAK

### Euskara sustatzeko aurrekontua likidatua

Toki-entitatearen izena: \_\_\_\_\_

Kodea	IFZ	Toki-erakundea	Gehienezko finantziakoa (*)

(\*) Portzentaje hori honako esparruetan ezarriko da: "aisia, kirola eta erlijioa" ("Ludotekak eta udaleku irekiak" lerroan) eta "kulturgintza" ("Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu" lerroan).

#### 1.- Euskara sustatzeko 2013ko aurrekontu likidatua

Ondorengo koadroa Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bi urtetik behin egiten duen *EAEko administrazioek euskararen sustapenera bideratutako giza baliabide, aurrekontu eta diru-laguntza publikoen estatistikarako* galde-sortatik atera da.

Eremuak	Gastu likidatua guztira	Gastu likidatu doitua EBPNren deialdiaren baitan lagundu dena
1.- IRAKASKUNTZA: hezkuntza alorrerako euskara egitasmo eta diru-laguntza guztien aurrekontua kalkulatu behar da. Eremu honetan bildu beharrekoak dira, besteak beste, ikastetxeetako hizkuntza normalkuntzako planak, ikastetxeek edo guraso elkarteek antolatutako eskola orduz kanpoko ekintzak, euskal girotze egonaldiak edota euskararen aldeko ekimenak, hezkuntza eremurako euskarazko ikasmaterialak eta softwaregintza, irakasleen hizkuntza prestakuntza eta abar.		
Guztira		
Eskola orduz kanpoko egitasmoak		
2.- EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA: euskaltegi pribatuei egindako diru ekarpenak, erakundearen aurrekontu propioetik ( <u>HABEren diru ekarpena kenduta</u> ) udal euskaltegiaren funtzionamendurako eta pertsonal gastuetarako jarritakoa, euskara ikasleei emandako diru-laguntzak (herritarrak oro har, gurasoak, merkatariak, enpresetako langileak, elkarteetako begiraleak), 'Mintzalaguna' egitasmoa, euskalduntze-alfabetatze alorrerako ikasmaterialak, eta abar. (1)		
Guztira		
Mintzalaguna egitasmoa		
3.- FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA: euskararen familia bidezko transmisiorako kanpaina eta egitasmoak, familia barnetegiak, haurtzaindegi eta haur eskoletan euskara indartzeko ekimenak, eta abar.		
Guztira		
4.- ADMINISTRAZIOA: erakundeko euskararen erabilera planak aurrera eramateko gastuak (pertsonalarenak edo zerbitzu kontratazioetakoak), funtzionarioen euskalduntze eta trebatze programak (ALET programa), euskara ikasten ari diren langileen ordezkapen gastuak, administrazio eremuko erabileraren itzulpen gastuak (itzultzaileen pertsonal gastuak eta zerbitzu kontratazioetakoak), herri administrazioaren eskumenero errotulazioa eta hizkuntza paisaia euskalduntzea, Administrazioarekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzeko komunikazio ekintzak, eta abar.		
Guztira		
Egitasmo aitzindariak		

5.- TEKNOLOGIA BERRIAK: informazio eta komunikaziorako teknologia berrietan euskara erabiltzeko enpresa eta elkartei emandako laguntzak, internet bidezko euskarazko zerbitzuak, baliabideak eta produktuak gizartera zabaltzeko egitasmoak, softwarea euskaraz sortzea helburu duten egitasmoak, hizkuntzen teknologietan euskara integratzeko egitasmoak, euskarazko hedabideetan teknologia berrien erabilera sustatzea eta abar.		
Guztira		
IKT deialditik laguntzen ez diren egitasmoak		
6.- LAN ARLOA: eremu pribatuko lantegi eta establezimenduetarako euskara egitasmoen gastuak eta erakundeak emandako diru-laguntzak, lantegi eta establezimenduen errotulazioa euskalduntzeko laguntzak, lan munduan euskara bultzatzeko sentsibilizazio eta komunikazio kanpainak, eta abar.		
Guztira		
LanHitz eremuko egitasmoak ez direnak		
7.- AISIA, KIROLA ETA ERLIJOA: aisi, kirol eta erlijio elkarteetarako euskalduntze programak, euskarazko aisi eskaintza zabaltzeko ekimenak, euskarazko aisi produktuen ekoizpena, zabalpena eta kontsumoa sustatzea helburu duten egitasmo eta diru-laguntzak, eta abar.		
Guztira		
Ludotekak eta udaleku irekiak		
Gainerako egitasmoak		
8.- CORPUS PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA: euskararen zaintza eta hobekuntzarako argitalpen, zerbitzu eta laguntzak, ahozkotasuna lantzeko egitasmoak, toponimia lanak, ahozko ondarea bildu eta zabaltzeko lanak, eta abar.		
Guztira		
9.- HEDABIDEAK (PRENTSA IDATZIA, IRRATIA, TELEBISTA ETA INTERNET): euskarazko hedabideak (aldizkariak, egunkariak, telebistak, internet bidezko euskarazko hedabideak eta abar) indartu eta hedabideetan euskararen erabilera bultzatzeko laguntza programak.		
Guztira		
10.- LIBURUGINTZA: euskarazko liburugintzaren sustapena (azokak, katalogoak...), euskal literatura, irakurzaletasuna eta idazmen tailerrak, euskarazko produktuen kontsumoa bultzatzeko liburutegietan bideratutako ekimenak, eta abar.		
Guztira		
11.- PUBLIZITATEA: enpresa eta saltokien komunikazio eta publizitate jardueran eragiteko ekimenak, produktuen etiketajea, eta abar.		
Guztira		
12.- KULTURGINTZA: kultur adierazpen guztietan (liburugintza eta literatura salbu) euskarazko kultur produktuen ekoizpena, zabalpena eta kontsumoa sustatzera bideratutako baliabideak (antzerkia, zinea, musika, kantagintza, bertsolaritza...). (2)		
Guztira		
Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu		
13.- EUSKARA ATALAREN ZUZENDARITZA, KOORDINAZIO, ADMINISTRAZIO ETA BESTELAKO KUDEAKETA LANAK. (3)		
Guztira		

14.- TOKI-ENTITATE EDOTA MANKOMUNITATEEI, EBPN GARATZEKO NAHIZ HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO EGITASMOAK BULTZATZEKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK.		
Guztira		
15.- HIZKUNTZA DIAGNOSTIKO ETA PLANIFIKAZIORAKO IKERKETA OROKORRAK: jarduera eremu edo sektore jakin bati bakarrik lotuak ez, baizik orokorrak diren ikerketak, bai eta azterketa soziolinguistikoak, kale erabileraren neurketak, plangintza estrategikoak eta abar ere.		
Guztira		
16.- INFORMAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIO EKINTZA OROKORRAK: euskararen erabilera sustatzeko informazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekimen orokor eta ez-sektorialen aurrekontuak.		
Guztira		
17.- BESTELAKO DIRU-LAGUNTZA, EGITASMO ETA GASTU OROKORRAK: aurreko ataletan kokatu ezin diren bestelako gastuak kalkulatu behar dira (euskara elkarreentzako laguntzak, euskararen inguruko jaialdi orokorrak, atzerriko hizkuntza proiektu eta erakundeekiko harremanak, hizkuntza eskubideen babeserako ekimenak (zehaztu).		
Guztira		
<b>Aurrekontu likidatua guztira</b>		

(1) **Oharra:** erakundeko bertako langileen euskalduntzeari dagozkion gastuak (ALET programa) eta euskara ikastaroetara doazen ordezkapen gastuak ere, administrazioari dagokion eremuan sartu behar dira (ERABILERA) eta ez hemen.

(2) **Oharra:** euskara elkartei diru-laguntza emateko krediturik balego eta helburuetan EBPNren aurreko eremuekin loturarik izan ez edota hainbat eremu harrapatuko balitu, diru-laguntza horren zenbatekoa 17. eremuan sartu beharko litzateke, bestelako egitasmo eta gastu orokorren atalean, alegia.

(3) **Oharra:** 2. zutabearen (kreditu doitua) lanpostu zerrendakoak ez diren langileen gastuak sartu behar dira.

<b>Idazkari kontu-hartzailearen edo kontu-hartzailearen izen-deiturak:</b>	
<b>Sinadura:</b>	
<b>Data:</b>	

## 2.- Euskara sustatzeko toki-erakundeak izandako 2013ko sarrera likidatuak

Toki-erakundeak euskara sustatzeko 2013an jaso dituen diru-laguntzak	<b>Sarrera likidatuak guztira</b>	<b>Sarrera likidatu dituak</b> EBPNren deialdiaren baitan laguntzen diren jarduerengatik
Eusko Jaurlaritzarena edo bere erakunde autonomoenak (3)		
Foru Aldundiena		
Bestelako erakunderen batetik (zehaztu beheko lerroan)		
<b>Euskararen sustapenerako zerbitzu eta ekintzen inguruan erakunde edo sailak 2013an aurreikusten dituen diru-sarrera propioak (matrikula ordainketak, tasak, salmentak...)</b>		
Matrikula tasak eta bestelako tasak		
Salmenta bidezko diru-sarrerak		
Bestelako diru-sarrera propioak (zehaztu beheko lerroan)		
<b>Sarrera likidatuak guztira</b>		

(3) **Oharra:** Ez sartu EBPN garatzeko HPStik etor litezkeen diru-sarrerak, ez eta HABEren diru-ekarpenik ere.

<b>Idazkari kontu-hartzailearen edo kontu-hartzailearen izen-deiturak:</b>	
<b>Sinadura:</b>	
<b>Data:</b>	